

ARTIKUTZAKO

• ttanttak •

n° 25

ABENDUA 2021



Aurkibidea

03
ELKARRIZKETA

ZER BERRI
Ingurumen-aztarna

09
ARTIKUTZA
IRUDITAN

10

ERRAIETATIK
Udazkena Artikutzan
Jarri proban zeure burua

12

BILDUMA
Scolopax rusticola

13

SUAREN
EPELEAN

14

IRUDI
GALERIA




Published by W. Curtis, Botanic Garden, Lambeth Marsh.

Elkarrizketa

NATURA BIZIA

Joan den apirilean, Natura Bizia dokumentala iritsi zen zinemetara. Ondoren, joan den uztailan, dokumental saila, 8 kapituluko, ikusi ahal izan genuen. Film hauek gure naturaren Biodibertsitatea ezagutzen laguntzen digute eta, horren barruan, Artikutzarena. Gure inguruari eta grabazioaren xehetasunei buruz gehiago jakiteko, Natura Bizia taldeko kide batzuk elkarrizketatu ditugu.



ELKARRIZKETA NATURA BIZIA

Zuen lana, dokumentala eta dokumental saila, zineman eta baita ere telebistan ikusteko aukera eduki dugu. Baina ikusi ez dutenentzat zelan deskribatuko zenukete?

Natura Bizia, gure inguruko natura ezagutzeko bidaia zoragarria dela esango genuke.

Hiru urtez egon zarete grabatzen, denetarik edukiko zenuten egun oso gogorak baina baita ere politak. Pozik emaitzarekin? Zein zen zuen helburua?

Bai, pozik gaude emaitzarekin. Euskal Herrian daukagun natura eta biodibertsitatea modu erakar-garri eta ederrean erakustea izan da helburua. Jendeak inguruan daukaguna ezagutu beharra zuela ikusten genuen, ze maitatzeko aurrena ezagutu egin behar da. Nola kontserbatuko dugu zerbait inguruan daukaguna ezagutzen ez badugu? Guk natura maite dugu eta lan honekin hori helarazi nahi izan dugu, irudiak zainduz eta baita gidoiarekin mezu oso dibulgatiboak transmitituz.

Naturazaleak diren horiek gustura ikusiko dute bai dokumentala baita ere seriea. Baina zer esango zenieke hain natura zaleak ez direnei, zergatik ikusi beharko lukete Natura Bizia?


Hain natura zaleak ez direnei, gure etxeetatik oso gertu natura ikusgarria daukagula esango nieke. Kilometro gutxitan, ekosistema oso dibertsoak aurkitzen ditugu: mendi malkartsuak, itsaso amaigabea, mila koloretako basoak, estepa luzeak... eta bertan, munduko animaliarik handienak diren bale urdina eta zere arruntak ikus ditzazkegu; edo Europako ugaztun mehatxatua den bisoi europarra; ia 3 metroko luzera duen eta mendietako hegazti mitologikoa den ugatza; sarrionak; hartzak; edota Europako ederrena den graellsia tximeleta... Ez dugu Afrikara edo beste edonora joan beharrik naturaz eta bertan bizi diren izaki ederrez gozatzeko, hemen ere badira oso interesgarriak diren animaliak eta baita ekosistemak ere.

Animaliak, eguraldia, landareak ez dira aktoreak beraz imajinatzen dugu grabaketak egiterakoan sorpresa bat baino gehiago edukiko zenuela, ezta? Zein izan da sorpresarik handiena?

Bai, naturan lan egitea ez da erraza. Paisaiak filmatzerako orduan, eguraldiaren menpe zaude beti. Eta bestalde, animalia basatiak filmatzean, zuk esan bezala, ez dira aktoreak! Ordu asko pasatu behar dituzu Hide barruan ezkutatuta eta beti prest egon behar duzu ze askotan sorpresak egon daitezke. Egun batzuetan, ez dugu ezer filmatzea lortzen eta beste batzuetan egun hobeak izaten dituzu. Badira ere naturak eskaintzen dituen sorpresak, eta handiena, bisoi europarra modu librean filmatzea izan da. Oso espezie urria denez eta ohitura batez ere gautiarrak dituenez, ez genuen espero hain ongi eta egunez filmatzea lortuko genuenik. Balio handiko irudiak lortu ditugu. Bestalde, itsasoko animaliak filmatzea Natura Bizia-ko lan taldeak izan duen erronka handienetakoa izan da. Itsasoak amaigabea dirudi... eta itsasontzian zaudela, izurde talde bat edo bale bat ikustea oso zaila da. Eta gero, ongi filmatzeko ere aukerak eman behar dizkizute, ze askotan, ur azpian sartu eta desagertu egiten dira. Hori horrela zela ikusita, hainbat eta hainbat irteera egin behar izan ditugu itsasora. Eta halako batean, beste sorpresa batekin ere egin genuen topo: inoiz aurretik filmatu ez den zifio balearen momentu eder batekin.

Kontuan edukita gaur egungo egoera (ingurumen krisia eta krisi sanitarioa) uste duzue testuinguru honek ingurumenarekiko kontserbazioa eta sentsibilizazioa handituko duela?

Hala dela uste dugu. Bizi izan dugun krisi sanitarioak ingurumenarekiko sentsibilizazioa sortu du, eta aspalditik dakigu klima aldatzen ari dela, poloak urtzen ari direla, emisio toxikoak murriztu behar direla, bai... baina askotan ez dakigu gure inguruan bizi diren animalia eta landareek ze kalte izan ditzaketan. Eta garbi izan behar duguna da, beraiek ere, guk, modu kontzientean eragindako ingurumen krisialdi baten ondorioak sufritzen ari direla. Hortaz, galdera da, gauzak aldatzeko prest zaude? Denon esku dago gauzak aldatu eta gure lur planetababestea.



Dokumentalak argi uzten du Euskal Herriko aberastasun naturala. 20 espezie baino gehiago filmatu dituzue ekosistema oso ezberdinetan. Baina Euskal Herriko inguruak, fauna flora ezagututa, zelan deskribatuko zenuke? zein da gurearen bitxieta?

Euskal Herrian, oso distantzia laburrean, ekosistema dibertsoak aurkitzen ditugu. Pirinioak, baso atlantiar eta mediterraniarrak, padurak, mendiak, ia desertutzat jo daitezkeen estepak eta nola ez, itsasoa. Hortaz gain, klima atlantiar eta mediterraniarrak aberastasun izugarria ematen diote gure naturari. Eta baita trantsizioko zonaldeek ere, ze hemen bi klimatiko espezieak aurkitzen ditugu. Beraz, oso kilometro gutxitan, espezie ugari eta oso ezberdinak aurkitzen ditugu, honek balio handia ematen diolarik gure ingurumen naturalari. Bitxieta? Ezin dugu inguru natural batekin gelditu, guztiek dute zerbait berezia...

Artikutzan ere bai filmatu duzue, zuentzako zein da Artikutzaren balio berezieta?

Artikutzak duen balio berezieta, itxita egon zen 100 urtetan naturak berreskuratzeko duen ahalegina da. Eta hortaz gain, Artikutza oso modu egokian kudeatzen dela iruditzen zaigu. Basoetan erortzen diren zuhaitzak ez dira batzen, modu naturalean uzten dira lurrean, horrek janaria eta ongaria ekartzen baitu bertako bizidunentzat, natura izanik protagonista. Bestalde, kotxe kopurua murriztuta egotea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu, ze garbi izan behar dugu ingurumenean presioizugarria sortzen dugula askotan, bai oinez joaten garenean eta baita kotxez joaten garenean ere. Eta presio horrek, gu ez konturatu arren, inpaktu bat sortzen du bertako bizidunetan.



Zer berri

INGURUMEN-AZTARNA

Gaur egun, erritmo jasanezinean kontsumitzen ditugu baliabideak, eta plan-etak asimila ditzakeenak baino hondakin gehiago sortzen ditugu. Garrantzitsu-
sua da produktuek, zerbitzuek eta enpresek beren bizi-ziklo osoan ekoiz-
pena, erabilera eta ezabaketa kontuan hartuta ingurumenean duten eragina
ezagutzeko tresnak izatea, hala nola ingurumen-aztarna. Horretarako, met-
odologia komun bat erabiltzen da, eta, horri esker, ingurumen-portaera ba-
loratu eta konparatu eta, hala, zenbateko ingurumen-inpaktua eragin den
eta noiz ezarri behar diren konponbideak inpaktu hori murrizteko.

Ingurumen-aztarnak 14 ingurumen-inpaktu mota hartzen ditu kontuan: klima-aldaketa, ozono-geru-
za suntsitzea, azidotzea edo baliabideak kontsum-
itzea, besteak beste.

Ingurumen-aztarna aztarna ekologikoarekin nahas
dezakegu, baina azken horrek giza eragina natur-
an neurtzen du, hau da, zenbat lur emankor eta ur
erabiltzen dugun kontsumitzen ditugun baliabide
guztiak ekoizteko eta sortzen ditugun hondakin
guztiak txertatzeko.

Karbono-aztarnatik ere bereizi behar da, hau da,
zuzenean edo zeharka sortutako berotegi-efek-
tuko gasen emisio-multzotik, baita aztarna hid-
rikotik ere, hau da, kontsumo-ondasun baten edo
zerbitzu baten ekoizpen-kate osoan zehar erabil-
itako ur gezaren bolumenetik (litroak edo met-
ro kubikoak). Horiek guztiek, gainera, herritarren
kontzientziazio- eta konpromiso-maila handitzeko
balio dute.



PRAKTIKA ONAK, EROSTEKO ORDUAN

Gero eta gehiagoko dugu ingurumenareki-
ko ardura; ingurumen-kontzientzia gero eta
handiagoa da. Klima-krisiaren aurrerapena,
arnasten dugun airearen kutsadura, urban-
izatzearen hazkundera, biodibertsitatearen
galera, itsasoen plastifikazioa... Baina, zer
egin dezakegu?

Gure kezka hori ekintzetan gauzatu de-
zakegu, zerbait erosi behar dugunean, adibi-
dez. Gabonak hurbiltzen ari diren honetan,
hau da, kontsumo handieneko aldiak bat
gainean dugun honetan, egunerokoan ap-
likatu ahalko ditugun zenbait gako emango
dizkizuegu.

JOKO RESIDUOS URBANOS
GARBIA

**Baztertu erabilera bakarreko
produktuak. Baita bilgarriak eta
hondakin bihur daitekeen guztia
ere. Eraman poltsa edo tapper
bat, eta kontuan hartu ontziratu
gabe, soltean erosteko aukera.**

**Kontuan hartu sosten-
garritasunaren ardatzak.
Erostean, kontuan har-
tu produktuak edo zer-
bitzuak asetzen duen
premia eta haren balio
ekonomikoa, baina ez
ahaztu ingurumen-ina-
ktua baloratzeaz.**

**Aukeratu bertako pro-
duktuak, freskoak eta
sasoikoak.**


**Agian, alokatu edo bigar-
ren eskuz erosi dezakezu
produktua. Oro har, aukera
horiek eragin txikiagoa
dute ingurumenean.**

**Zaharkitutako edo hondatutako produktu
bat bota aurretik duzunean, kudea ezazu
behar bezala, hau da, bidera ezazu berre-
rabili edo birziklatzera.**

**Ziurtatu behar
duzun hori ez du-
zula edo ezin du-
zula konpondu.**

**Irakurri etiketak.
Ingurumenaren
aldetik atsegina-
goa den produktu
edo zerbitzu bat
hautatzeko erabil
ditzakegun tres-
etako bat dira.**

**Hausnartu, eros
ezazu behar duzuna
baino ez. Planifikatu
erosketa: egin zer-
renda bat, adibidez.**





EKOETIKETATZEA

Ondasun materialen bat erosten dugunean, produktuaren kantitateari, prezioari eta itxurari erreparatzen diegu. Baina, batzuetan, ez dugu kontuan hartzen informazio-elementu garrantzitsuenetako bat: etiketatzea; izan ere, produktuei eta fabrikatzaileei buruzko informazioa ematen digu. Gainera, artikulua konparatzeko aukera ematen du. Ingurumena errespetatzen duten produktuak nahi baditugu, ekoetiketak bilatu behar ditugu.

Borondatezko ingurumen-kalifikazioko sistema da, produktuak ingurumenean eragin txikiagoa duela ziurtatzen duena. Ingurumen-komunikazio egiazkoa eta fidagarria bermatzen du, engainurik gabe. Europako Etiketa Ekologikoa da ezagunenetako bat. Ingurumen-portaera handiko produktuak adierazten ditu.

Erronka hau proposatzen dizugu: zerbait erosi behar duzun hurrengoan, kontuan hartu etiketak eta ekoetiketak, edota begiratu etxean dituzun produktuei, ea zer etiketa aurkitzen duzun! Hona hemen adibide batzuk:



Erraietatik

UDAZKENA ARTIKUTZAN

Uda atzean utzi, eta berotzeko eta hosto lehorrak zapaltzeko garaia heldu da... udazkena heldu da. Perretxiko bila joateko, gaztainak jasotzeko eta basoko koloreez gozatzeko garaia. Horretarako, garrantzitsua da mendirako irteerak planifikatzea.




Donostiako Udalaren webgunearen atal batek bisita autogidatuak egiteko aukerak eskaintzen ditu. Ibilbide zehaztuak eta inguruko elementu natural eta historikoei buruzko informazioa dituzu. Baina... gogoratu: Artikutzan ez dago estaldurarik; beraz, ideia ona da, irteera planifikatzeaz gain, mapa bat ere eramatea (webgunean deskargatu dezakezu), eta aldi oro non gauden estalduraren beharrik gabe adierazten duen aplikazioaren bat ere eramatea mugikorrean.



Ezagutu eta planifikatu nahi duzun ibilbidea; nahi duzun jardueraren arabera, aukera bat baino gehiago duzu. Gainera, iragazkiak gehitu ahal izango dituzu, hala nola ibilbidearen kilometroak eta desnibela, edo ibilbide zirkularra nahi duzula zehaztu ere, adibidez Zure txangoak antolatze-ko beste aukera bat zerrendak sortzea eta interesgarrienak iruditzen zaizkizunak gehitzea da. Nahi adina zerrenda sor ditzakezu. Ibilbidearen mapak deskargatzeko aukera ematen du; horrela, Interneteko konexiorik gabe gidatu zaitezke. Aplikazioak badu beste aukera hau ere: argazkiak eta ibilbideak komunitatearekin partekatu ditzakezu, hau da, beste batzuei eman diezaiekezu gustatzen zaizkizun bide, aintzira, ibilbide eta abarren berri. Ibilbidea ofline ere grabatu eta gorde dezakezu, hau da, argitaratzeko baino ez duzu Interneten beharra izang

JARRI PROBAN ZEURE BURUA

Ezagutzen al duzu animalia hauetakoren bat? Esango al zenuke zer diren edo non bizi diren?



1. Kironomidoak

Tolerante a la contaminación

2. Odonatoak

Sorgin-orrazak (ez du kutsadura toleratzen)

3. Efemeropteroak

Efimeroak (ez du kutsadura batere toleratzen)

4. Hirudineoak

Izainak (kutsadura toleratzen du)

5. Krustazeoak

Ganbak (kutsadura toleratzen du erabat)

6. Triopteroak

Tututxoak (ez du kutsadura batere toleratzen)

Lasai, lagundu egingo dizugu. Izaki txiki-txiki horiek makro-ornogabeak dira, intsektu txikiak. Ibaietan bizi dira, eta informazio asko ematen digute uraren eta, beraz, arro/eremu osoaren kalitateari buruz. Baina, zergatik? Makroornogabe horietako batzuek ez dute batere toleratzen kutsadura eta, hartara, ezin dute bizi uraren kalitatea ona ez bada: garbia, ia uhertasunik gabe, pH maila egokiarekin, ondo oxigenatua eta kutsatzailerik eta ongarririk gabe behar dute ura. Eta Artikutzako ibaietan daude horiek guztiak, zergatik eta bertako urak kalitate bikainekoak direlako. Behin ezagututa, zuen inguruko ibaietan bila ditzakezue, eta uren kalitatea zehaztu.

ZER DIRA BIOADIERAZLEAK?

Atmosferaren, uraren edo lurzorua kalitateari buruzko informazioa ematen diguten organismo bizidunak dira, hala nola landareak, likenak, animaliak eta onddoak. Asko daude; esate baterako, zapaburuek uraren kalitatea ona dela adierazten digute, eta goroldioak, airearen kalitatea ona dela.



Bilduma

SCOLOPAX RUSTICOLA

Oilagorra, bekada eta azaia ere esaten zaio. Hegazti zangaluzea da, eta mokoia ere luzea du.

HABITATA ETA ELIKADURA

Morfologia egokia dute estuarioetan, hondartzetan eta hezeguneetan bizitzeko. Baina, Euskadin, lurzoruan hezetasun pixka bat duten baso itzaltsu eta freskoetan agertzen da. Neguko hilabeteetan, ilunabarretik egunsentiraino elikatzen dira, belardietan. Udan, aldiz, eguneko hegazti bihurtzen da, eta basoaren barruan elikatzen da, oihanperik gabeko basoetan. Lur-zizareak behar ditu eskura, batez ere horiexek baititu elikagai.

BANAKETA

Udazkena iristean, Iberiar penintsula mendebaldeko Europa osoko migrazio-kanal nagusia izan ohi da, eta ehunka mila hegazti igarotzen dira Gibraltarko itsasartetik migrazio-bidean. Gutxitan egiten dute habia Euskadin, oso tarteka, gainera, isurialde kantauriarreko basoetan. Europan, oso gutxi hedatzen da Mediterraneo aldeko herrialdeetan barna ugaltzaile gisa, kontinentearen erdialdean eta iparraldean egon ohi baita.

Suaren epelean

ETA TXIKIENENTZAT?

Biodibertsitatea zer den ikasteko ipuin bat. Zer iruditzen? Horrela, gure ingurunearekiko jakin-mina piztuko da haiengan, biodibertsitatea nola zaindu ulertzen duten bitartean.



BICHO, EL REPORTERO DE LA BIODIVERSIDAD

Ipuin bat da, fauna- eta flora-espezieen garrantzia eta haien artean dauden interakzioen katea ulertzeko.

MY GREEN ENERGY PLANET

Gure ingurunea hobeto ezagutzeko beste modu bat jolastea izan daiteke; hona hemen proposamen bat: My green energy planet. Gazteei zuzendutako jokoa da, eta mundu birtual bat aurkezten du. Mundu horretan, energia berriztagarrien erabilera sustatzeko eta ingurumenari dagokionez jasangarria eta arduratsua den energia-errealitate bat eraikitzen lagunduko duten erabakiak hartzeko ekintzak egin behar dituzte parte-hartzaileek.





UNA VIDA EN NUESTRO PLANETA

David Attenborough-ena Bere bitzita eta Lurraren eboluzio-historiaren azken urteak gogora ekartzen ditu dibulgatzaile handi horrek, egin dituen dokumentalei esker ezagun-ezaguna denak ("Planet Earth", adibidez). Planetaren biodibertsitate zoragarria azpimarratzen du, naturagune interesgarrienak erreparasatuz eta haien gainbeheraren, klima-aldaketaren ondorioen eta biodibertsitatearen galeraren inguruan ohartaraziz. Ez dela beranduegi dio, eta irtenbideak proposatzen ditu egungo arazoei, klima-aldaketaren ondorioei, pobreziari, gero eta biztanle gehiago izateari eta abarrei aurre egiteko. Ardurarako deia da. Azken finean, arriskuan dagoena ez da planeta, baizik eta bertan bizitea.

David Attenborough

*Irudi
galeria*



ESCUELA
DEL AGUA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

A
ARTIKUTZA
1919-2019



Published by W. Curtis, Botanic Garden, Lambeth Marsh.

ARTIKUTZAKO

• t t a n t t a k •

• • •